

Euskarazko lanak irakurtzeko zaletasuna aztergai Bilbon gaur eta bihar

Euskal literaturaren balioez eta hezkuntzan duen eraginaz ariko dira hainbat egile eta aditu BizBAK jardunaldietan

ERREDAKZIOA. BILBO

Euskal literatura irakurtzeko zaletasuna, eskolaz kanpoko hezkuntzan duen eragina eta emozioen inguruan hezteko duen gaitasuna izango dituzte hizpide gaur eta bihar Bilbon, EHUK antolatutako BizBAK Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura ikastaroetan. Fito Rodriguezek koordinatuta, hainbat euskal idazlek eta adituk hartuko dute parte jardunaldietan. Zazpikaleetako Bidebarrieta liburutegian izango dira saioak.

Fito Rodriguez bera, Ander Iturriotz eta Iratxe Retolaza ariko dira gaur, 09:00etan. Hezkuntza eta literatura, irakurtzeko zaletasuna eta genero eraikuntza izango dituzte hizpide. 18:00etan, hirurek mahai-ingurua egingo dute.

Bihar goizean, berriz, balioen zeharkako trataera euskal literaturan, haur eta gazte literatura, eta literatura eta heziketaren arteko lotura aztertuko dituzte Ur Apalategik, Arrate Egañak eta Patxi Salaberrik. Arratsaldean berriro ariko dira hizlari.